

Prentsarako txostena

Helen Frankenthaler

Araurik gabe margotzen



Apirilak 11 – irailak 28, 2025

Erakusketa Florentziako Fondazione Palazzo Strozzi eta New Yorkeko Helen Frankenthaler Foundation erakundeek antolatu dute Guggenheim Bilbao Museoarekin lankidetzan

BBVA Fundazioarentzat ohore handia da erakusketa hau posible egiten lagundu izana. BBVA Fundazioak Guggenheim Bilbao Museoarekin lankidetzan antolatutako hogeita bederatzigarren erakusketa da; hain zuzen, Fundazioak 1997az geroztik ematen dio babesa Museoari, inauguratu zenetik bertatik. Ibilbide horretan, artisten atzera begirako erakusketez gainera, mugimenduak, sormen-esparruak, kulturak nahiz egile, garai edo herrialdeen arteko lotura-ildoak ardatz zituzten ekimenak garatu ditugu.

Bisitari bat baino gehiago liluratuta geldituko zen, beharbada, erakusketa haietako batean, *Espresionismo abstraktua* erakusketan (2017), *Europa* mihisearekin. Mihise horrek ordezkatu zuen Frankenthaler 1940ko hamarkadako New Yorkeko pintura irauli eta distira berri batez jantzi zuten artisten obra-sorta hautatu hartan. Zortzi urte geroago, fokua hamarkada bat aurreratuta, aukera dugu Helen Frankenthalerren mende Erdian barrenako sorkuntza-lanaren emaitza dastatzeko. XX. mendeko panorama artistikoko egile aipagarria da, abstrakzioa eta berrikuntza teknikoa uztartzeko zeukan ahalmen bikainagatik. Haren obrak oreka berezi bat erakusten du, aditzera ematen baitu artistak konposizio-prozesua menderatzen duela baina bat-batekotasunari emanik lan egiten duela. Ikuspegi horretatik, pinturaren mugak zabaldu zituen Frankenthalerrek, aurretiko kanonak kolokan jarritz.

Helen Frankenthaler: Aaurik gabe margotzen erakusketak artista estatubatuarraren ibilbide luzearen eta lorpenen berri ematen du, 1940ko hamarkadatik hasi eta gure mendearen lehen hamarkadaren hasierara arteko piezen bidez. Gainera, garai hartako eszena plastiko biziaren protagonista izandako beste artista batzuenekin batera ikusgai jarri dira obra horiek. Formatu handiko lanak dira nagusiki, Frankenthalerrek bere obran jorratutako gai nagusia nabarmentzeko: gertaera piktorkoa bera.

Aaurik gabe margotzen erakusketan, begi-bistan gelditzen da Frankenthalerren ikuspegi iraultzailea eta haren obra elkarriketan jartzen du egilearekin afinitate eta adiskidetasunezko harremana izan zuten margolarien eta eskultoreen sorkuntzekin, zeinek ezin hobeki islatzen baitute 1950 inguruan New Yorken abiatutako erronka berrien konkista. Frankenthalerrek beti jo zuen bere inspirazio-iturrietatik haratago: iraultza estetiko haren aitzindari izandako artistekin batera lan egin zuen eta haien eraginaz blaitu zen —aurrez beste askoren bezala—, baina, konbentzioetatik urrun beti, bere ikuspegi pertsonala garatu zuen, askatasuna oinarri harturik.

Erakusketa hau Guggenheim Bilbao Museoarentzat esanguratsua den une batean dator: Zuzendari Nagusi lanetan Miren Arzalluzek Juan Ignacio Vidarteri testigua hartuko dion unean, alegia. Horrenbestez, aitortza egin nahi diot Vidarteri ia hiru hamarkada hauetan egindako lanarengatik; Arzalluzi, berriz, nire ongietorria eta desiorik onenak erakundearen etorkizunera begira. Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiot Douglas Dreishpoon, erakusketaren komisarioari, artearen historian bide berriak ireki zituen sortzaile berezi baten mundu piktorko iradokitzailean murgiltzeko aukera emateagatik.

Carlos Torres Vila

Presidentea

BBVA Fundazioa

Helen Frankenthaler: Aurik gabe margotzen

- Florentziako Fondazione Palazzo Strozzi eta New Yorkeko Helen Frankenthaler Foundation erakundeek antolatua, Guggenheim Bilbao Museoarekin lankidetzan
 - Komisarioa: Douglas Dreishpoon, Helen Frankenthalerri buruzko katalogo arrazoituaren zuzendaria
 - Data: 2025eko apirilaren 11tik irailaren 28ra
 - Babeslea: BBVA Fundazioa
-
- *Helen Frankenthaler: Aurik gabe margotzen* erakusketak gorazarre egiten dio arte abstraktuan modu berriak bilatzeari inoiz utzi ez zion artista aitzindariaren ondareari.
 - Frankenthalerrek 1953 eta 2002 urteen artean sortutako hogeita hamar abstrakzio poetiko biltzen ditu erakusketak, eta haren garaikide batzuen —Anthony Caro, Morris Louis, Robert Motherwell, Kenneth Noland, Jackson Pollock, Mark Rothko eta David Smith— margolanak eta eskulturak ere biltzen ditu, artista haien artean sortutako sinergiak nabarmentzeko.
 - Frankenthalerren lana funtsezkoa izan zen espresionismo abstraktuaren eta kolore-eremu pinturaren (Color Field Painting) arteko trantsizioan, eta artista ezaguna da, batez ere, “busti/zikindu” (soak-stain) teknika erabili izanagatik.
 - Arte sortzerakoan, Frankenthalerrek (beste artista batzuek bezalaxe) bazuen mantra bat: “Ez dago aurik!”. Horrek zera esan nahi zuen, ez zela zertan atsegin-emaile izan artea egiteko moduari, erabilitako materialei ezta izan zezakeen itxurari zegokienez.

Guggenheim Bilbao Museoak *Helen Frankenthaler: Aurik gabe margotzen* aurkeztu du, abstrakzioaren aitzindari izandako artista handiaren omenez espainiar estatuan inoiz egin den erakusketarik zabalena. BBVA Fundazioa da erakusketaren babeslea —1997az geroztik Guggenheim Bilbao Museoaren Babesle Estrategikoa ere bada—, eta Fondazione Palazzo Strozzi eta Helen Frankenthaler Foundation erakundeek antolatua da Guggenheim Bilbao Museoarekin lankidetzan. Helen Frankenthalerrek sei hamarkadatan zehar jorratutako ibilbidearen ikuspegi kronologikoaren bidez, erakustaldiak sortzaile estatubatuarren arte iraultzailea goratzea du helburu.

Helen Frankenthaler: Aurik gabe margotzen erakusketak testuinguruan kokatzen du margolariaren sortze-lana, adiskidetasun, kideatasun eta eragin artistikoen ikuspegitik. Erakusketak Frankenthalerrek 1953 eta 2002 urteen artean sortutako hogeita hamar abstrakzio poetiko biltzen ditu, baita bere garaikide batzuen —Anthony Caro, Morris Louis, Robert Motherwell, Kenneth Noland, Jackson Pollock, Mark Rothko eta David Smith— zenbait margolan eta eskultura ere, artista haien artean sortutako sinergiak nabarmentzeko.

Erakustaldian jasotako Frankenthalerren margolanetako bi Guggenheim Bilbao Museoaren Bildumara gehitu dira berriki.

Helen Frankenthalerren (New York, 1928–Connecticut, 2011) lana funtsezkoa izan zen espresionismo abstraktuaren eta kolore-eremu pinturaren (Color Field Painting) arteko trantsizioan. Artista “busti/zikindu” teknika asmatu izanagatik da ezaguna batik bat, eta mihise eta paper gaineko pinturen corpus aberatsa sortu zuen, baita eskulturak, zeramika, tapizak eta grabatuen sailak ere. Bere obra berritzailea mundu osoko museo nagusietako bildumetan dago ordezkaturik, eta artista garaikide ugariaren inspirazio-iturri izaten jarraitzen du.

ERAKUSKETAREN IKUSPEGI OROKORRA

Helen Frankenthaler: Araurik gabe margotzen kronologikoki diseinatuta dago, hamarkadaz hamarkada, berrogeita hamarreko hamarralditik hasi eta 2000. urtera arte. Atal bakoitzak azalpen-testu bat du sarrera moduan, eta Frankenthalerren ibilbide luzeko kapitulu bat adierazten du. Erakusketa honek omenaldia egiten die arte abstraktuan modu berriak bilatzeari inoiz utzi ez zion artista aitzindariari eta hark utzitako ondareari.

Bere kutsu pertsonala: 1950eko hamarkada

Betty Parsons Gallery-n Jackson Pollocken margolanak ikusi zituenean, Frankenthaler margolari gazteari zirrara sakona eragin zioten haren keinuzko abstrakzioek.

Ohiko astoa alde batera utzita, bere estudioko —aletegi batean kokatua— zoruan zabaldutako mihise erraldoien inguruan mugitzen zen Pollock. Bere margolanetako batzuek, abstraktuak izateari utzi gabe, irudi argigarriak azaleratzen dituzte. Frankenthalerri jakin-min handia eragin zion irudi subliminalen adierazkortasun horrek, eta erantzun egin zien Pollocken metodo erradikalei: gorputz osoarekin inprobisatutako keinuaren koreografia baliatu zuen, eta pintura abstraktuak atzean nolabaiteko mezua izan dezakeela mahaigaineratu zuen.

Marrazketaren bat-batekotasunak eragindako abstrakzioa ondo egokitzen zitzaion Frankenthalerren bulkada artistikoari, izan ere, baliabide horrek bere irudimena zeinu, ikur eta eszena piktorikoen bidez proiektatzeko aukera ematen zion bere burua guztiz agerian utzi beharrik gabe. Anbiguotasuna funtsezkoa zen: bere irudiek misterioitsuak izaten jarrai zezaten nahi zuen, poemak balira bezala, bakoitzarentzat gauza bat izan zitezen. Pollocken lanean, pintura prozesu ireki bat zela ikusi zuen, marraztearen baliokidea. Hala, marrazten duen norbaitek izan ohi duen pentsamendu desinhibitua izan zen bere 1952ko *Mendiak eta itsasoa* (*Mountains and Sea*) margolan berritzailearen katalizatzailea, baita erakusketa honetako koadro askorena ere, tartean atal honetako lanik zaharrenena —denak ere talentu goiztiar eta aparteko baten erakusle—.

1953ko *Horma irekia* (*Open Wall*) New Yorkeko bere estudioan margotu zuen Frankenthalerrek. Horma baten izaera estatikoa, geldia eta zeharkaezina dakar gogora izenburuak; hemen, hala ere, irekia da, eta argi- eta kolore-zerrendek zeharkatzen dute. Frankenthalerrek berak zioenenez, “espazioa eta muga nolabait iradokitzekeo esperimendu gisa hasitako margolana da [...] Azkenean, koadroaren ardatzak, erantzutea eragiten dizun horrek, berez ez du ia zerikusirik gaiarekin, espazioen interakzioarekin eta formen justaposizioarekin baizik”.

Korronteari jarraituz: 1960ko hamarkada

Frankenthalerrek bere senar Robert Motherwell margolariarekin batera Cod lurmuturrean (Provincetown, Massachusetts) igaro zituen udaldiek (1960–69) beste norabide bat ekarri zuten haren pinturan. Esaterako, 1966ko *Tutti-Frutti* lanean, hodei arinei neurrigabekeria baikorra darie, eta 1967ko *Giza muga* (*The Human Edge*) obran, berriz, zerrenda zuzenek monolitoak balira bezala egiten dute beherantz. Izan ere, gizakiaren mugak eszentrikoak izan daitezke. Frankenthaler inperfekzioekin jostatzen zen, eta bere lanetan umorea bilatzen zuen beti. Udaldi haiek, margotzeko ez ezik, hurbileko lagunekin egoteko ere baziren; David Smith eskultoreak, adibidez, maiz bisitatzen zuen bikotea.

Frankenthaler eta Smith uste berekoak ziren artea sortzeko garaian: "Ez dago araurik!". Margolaria zein eskultorea izan (edo biak) mantra berbera zen: araurik ez egote horrek esan nahi zuen ez zegoela zertan atsegin-emaile izan artea egiteko moduari, erabilitako materialei edo haiek har zezakeen itxurari zegokienez. Obrak ilunak izan zitezkeen, baina baita alaiak ere. Esaterako, Smithen 1964ko *Titulurik gabea* (*Zig VI*) pieza —gurpil ñimiñoetan bermatutako habe pilatu eta soldatuz egina— haurren jostailu erraldoi baten antzera kulunkatzen da.

Atal honek 1965eko *Santorini* ere hartzen du barnean, Helen Frankenthaler Foundationek Museoari dohaintzan eman berri dion obra bat. Pieza hori Guggenheim Bilbao Museoaren Bilduman sartu diren artistaren bi lanetatik lehena da. Egeo itsasoaren ikuspegi zabalengatik ezaguna den Greziako uhartearen izena hartzen du margolanak, eta Frankenthalerren abstrakzio poetikoaren adibide bikaina da.

Frankenthalerrek Atenas eta Greziako uharteak bisitatu zituen Motherwellekin eta haren bi alabekin —Lise eta Jeannie— 1965eko udan. *Santorini* margolanak forma amorfoak eta geometrikoak uztartzea lortzen du lehorreko, itsasoko eta zeruko elementuak iradokitzen dituen konfigurazio minimalista batean.

Lagunartean

Atal honetako lanek testuinguru zabalagoa eskaintzen diote erakusketari. Batzuk, adiskidetasunaren seinale, opari gisa jaso zituen Helen Frankenthalerrek; beste batzuk, berriz, artistak berak erosi zituen —horietako bi museoen maileguak dira—.

Frankenthaler eta Robert Motherwell hamahiru urtez egon ziren ezkontuta (1958–71). Elkarrekin zeudela, familia eta lagunak partekatu zituzten, Cod lurmuturrean eta Europan igaro zituzten udaldiak, eta artearen inguruko ideiak trukatu zituzten. Motherwellen *Iberia* (1958) eztei-bidaian bikotea Espainian izan zen urte berean margotua da.

Mark eta Mell Rothko ere bikotearen zirkulu artistikoan zeuden, eta Pollock berrogeita hamarreko hamarkadan Frankenthalerrentzat izan zena, Rothko izan zen hirurogeiko hamarkadaren hasieran: bestelako iruditeria abstraktu baten katalizatzailea.

David Smith arte-kritikari estatubatuarra Clement Greenbergen bitartez ezagutu zuen Frankenthalerrek eta, Motherwellekin ezkondu ondoren, familiako kide oso maitatua izan zen. Haren *Arrano-zaintzailearen erretratua* (*Portrait of the Eagle's Keeper*, 1948–49) —Frankenthalerrek eskuratutako lehen artelanetako bat— beti izan zuen bere aldean.

Askatasun berria aurkitzea: 1970eko hamarkada

1970eko hamarkadaren hasieran, Motherwellengandik dibortziatu ondoren, Frankenthalerrek bere burua berrasmatu zuen. Udaldiak bidaiatzeko hartu zituen, besteak beste, Italia, Frantzia, Suitza, Austria, Belgika eta Ingalaterrara. Estudiodun etxe bat alokatu zuen Stamforden (Connecticut), itsasoaren ondoan, eta New Yorketik kanpo denbora gehiago ematen hasi zen. Geroago, etxe bat erosi zuen Shippan Point-en, eta estudio berri bat eraiki zuen bertan.

Egongelatik Long Island itsasartea ikusten zuen Frankenthalerrek. Hala, itsas paisaiak eta panoramikak bestelako pintura abstraktua —tonuetan eta giroetan errotua— lantzeko oinarri bihurtu ziren artistarentzat, eta horren adibide da *Ocean Drive West # 1* (1974).

Hirurogeita hamarrek hamarkadaren erdialdeko margolan “zerrendadunek” hiri-paisaiaren bertikaltasuna iradokitzen dute. *Plexoa* (*Plexus*) bermatzen duten zerrenda zurietan *Giza muga* (1967) laneko zerrendei darien energia alderrai bera antzematen da.

Goizak (*Mornings*, 1971) formazio geologikoak edo gorputzeko barrunbeak iradokitzen dituzten irudi-sail batekoa da. 1970eko hamarkadaren hasierako abstrakzioetako batzuetan, hutsune izugarri batek erditze-kanala dakar gogora; koloretako orban eta odoljarioek hodi estuak betetzen dituzte, korpuskulu organiko txikiak balira bezala. Frankenthalerrek 1969 eta 1973 urteen artean sortutako abstrakzioek anbiguo izaten jarraitzen dute, bizitzako inguruabarrek eurek esanahia koloreztatu arren.

Sei metrotik gora luze den *Urdin mugikorra* (*Moveable Blue*, 1973) mihise bikainean Frankenthalerrek muturrera eraman zuen orbantze teknika, erabateko konfiantzaz margotu, marraztu eta pintura isurita. Bere senaz fidatzen zen, irudiaren dinamika espaziala inoiz bistatik galdu gabe. Hauxe zioen berak espazioaren garrantziaz: “Ez dago mihise laua baino gauza lauagorik. Errespetatu egiten ditugu gainazal hori nolabait engainatzeko jolasa eta arriskuak, espazioan mugitzen den argia sor dadin. Lautasunari sakontasuna emateko gai den margolan polit bat, anbiguotasun zoragarri bat. Espazioaren eta argiaren eskala eta elkarrekintza dira, neurri handi batean, guztiaren gakoa”.

Atalaseak: 1980ko hamarkada

Helduaroan sartzea inimizazio-erritua da edonorentzat. Frankenthaler bezalako artista batentzat, adin ertainaren muga zeharkatzeak errealtate berriei aurre egitea esan nahi zuen: bazekien garrantzitsua zela New Yorken jarraitzea gainerako artisten lanak ikusteko eta bere negozioak aurrera ateratzeko. Baina, bazekien ere berarentzat funtsezkoa zela hiritik kanpo denbora gehiago igarotzea, itsasotik hurbil: oreka kontua zen, eta bi gauzak edukitzeko modua aurkitu zuen, margotzeko inoiz utzi gabe.

Frankenthalerrek artearen historiarekiko begirunea izaten ikasi zuen Paul Feeley-ren arte-eskoletan, Bennington Collegen, eta errespetu hori ez zuen sekula galdu. Paleolitoko kobazuloetatik Moneten igebelar berantiarretaraino, Frankenthalerrek ez zion inoiz utzi garai guztietako artean inspirazioa bilatzeari. Hala, hirurogeita hamarrek hamarkadaren amaieran, baita laurogeikoan ere, Tiziano, Velázquez, Manet eta Rembrandten margolanetan aurkitu zuen inspirazio-iturria berriz ere. 1968an grabatutako elkarriketa batean, bere lagun Barbara Rosek artista haien lanetan zer ikusten zuen galdetu zionean, Frankenthalerrek

"argia" erantzun zuen, eta gaineratu zuen: "Horrek areagotu egin zuen pintura abstraktuekiko dudaren sentisibiltatea. Pinturaren argia baita bere eragilea".

Antzinako maisuen koadroetako xehetasun abstraktuak aztertuta —alkandora orbandu bat izan edo soineko handi bat— atalase tekniko bat zeharkatu zuen Frankenthalerrek, eta lausodura zeharrargien, hondo koloreztatuena, ur-kolore eta geruza garden sotilen unibertso tonal batean barneratu zen. Bestelako espazioa eta argia aurkitu zituen, *Ekialdeko argia* (*Eastern Light*, 1982), *Katedrala* (*Cathedral*, 1982), *Madril* (*Madrid*, 1984) eta *Izarrei begira* (*Star Gazing*, 1989) lanetan islatuak.

Eskultura egitera gonbidatua

Anthony Caro 1959an sartu zen Frankenthalerren lagunarteko zirkuluan, New Yorkera egin zuen lehen bidaiari. Harrezkero, haren lagunak minenetakoa izan zen. Margolariak eskultura eta eskultoreak estimatzen zituen, bereziki Caro eta David Smith, biak erakusketa honetan ordezkatuak. Hari merezitako omenaldia egiteko, erakusketa elkarren ondoan beha daitezke Caroren *Eskaileretan gora* (*Ascending the Stairs*, 1979–83) eta Frankenthalerren *Matisse mahaia* (*Matisse Table*, 1972), Londresko hiriguneko mapa (*Heart of London Map*, 1972) eta *Patioa* (*Yard*, 1972).

Artistak 1972ko udan egin zituen hiru eskultura horiek, Caroren Londresko estudioan igaro zituen bi aste emankorretan; Carok materialak eta bere laguntzaile ohi bat utzi zizkion. Frankenthalerrek bere pinturari bezala heldu zion eskulturari: intuitiboki. *Eskaileretan gora* lanaren atzealdean altxatzen den kubo ñimiñoa Smithen *Cubi* (1963–65) eskultura-sail berantiarri egindako erreferentzia ezkutua izan liteke nolabait, lagunaren arteko loturari egin, alegia.

Edertasunaren bila: 1990eko hamarkada

1990eko hamarkadan, Frankenthalerrek bi modutan ekin zion margotzeari; biak espontaneoki sortuak baina era desberdinetan ebatziak. Lehenengoa saialdi bakar batean hasi eta buka zitekeen, ukitu txikiek, hamarkada batzuk lehenago *Mendiak eta itsasoa* (1952) lanarekin abiatu zuen berritze-prozesuan bezala. Bigarrenean —berak "pintura berritua" deituan— "gainazal landuagoa edo karrakatuagoa, askotan ilunagoa, trinkoagoa" sortzen zuen. Asmoa alde batera utzita, artistaren beraren hitzetan, "koadro eder" bat lortu nahi zuen, "sortu berria" zirudiena, "sortze-prozesuan orduak, asteak edo urteak emanda ere". *Jano* (*Janus*, 1990) eta *Yin Yang* (1990) kidekoak dira: aurkakoei bat egiten duten lekuan, biek partekatzen dituzte hondo koloreztatuak, geruza gainjarriak eta bektore gardenak. Eremu batzuek beste galaxia batzuetarako atalasea ematen dute, ertzetan suzko lorratz distiratsuak dituztela edo puntu beltzen hodei batek zipritinduta.

Arrasteluaren aurrerabidea (*The Rake's Progress*, 1991) eta *Fantasiatzko lorategia* (*Fantasy Garden*, 1992) margolanetan halako trinkotasun fisiko bat antzeman daiteke. Lan horietan gelarekin esperimentatu zuen artistak, pintura akrilikoarekin nahastuta eta arrastelu, espatula, belaki eta zurezko koilarekin manipulatu. *Mailegatutako ametsa* (*Borrowed Dream*, 1992) eta *Zurrunbiloa* (*Maelstrom*, 1992) margolan latz, irregular eta erradikalek artistaren obra berantiarri buruzko galdera existentzialak islatzen dituzte.

Atal honek *Requiem* (1992) ere hartzen du barnean, Museoaren Bildumari gehitu zaizkion artistaren bi lanetatik bigarrena, berriki eskuratua. *Requiem* piezan —hildakoen omenezko musika-konposizio edo meza solemne bati erreferentzia egiten dio izenburuak— kolore-geruza ilunak azaleratzen dira malda espazial malkartsu batetik. Bertan, badirudi argi amaigabe batek arintzen duela heriotza astun bezain beltza.

Azkeneraino margotzen: 2000ko hamarkada

1990eko hamarkadaren amaieran Helen Frankenthalerri eskainitako erakusketa handiak egin ziren. Haietako bat, *Mendiak eta itsasoa eta gero: Frankenthaler 1956–1959*, New Yorken inauguratu zen 1998an, Solomon R. Guggenheim Museumen, eta ondoren, Guggenheim Bilbao Museora eta Deutsche Guggenheim Berlinera bidaiatu zuen. Beste batek, Neuberger Museum of Art-en izandakoak, bere bilduma pertsonaleko margolanekin errebasatu zuen artistaren ibilbidea. 2001ean, Arteen Domina Nazionalea jaso zuen, artista bati AEBko herriak emandako ohorerik handiena.

Frankenthalerrek zailtasunik gabe txandakatu zuen beti mihise gaineko pintura eta paper gainekoa. Paperak aukera ematen zion erraztasun handiagoaz lan egiteko eta, behar izanez gero, lana desegiteko. Bestetik, paperarekin eta mihisearekin zuen etengabeko hartu-emanaldatu egin zen adinaren arabera. Zoruaren gainean zuzenean zabaldutako mihise baten konposizioan lan egitea fisikoki neketsuegia gertatu zitzaionean, artista modu naturalean aldatu zen paper-orri handietan lan egitera, edo euskarrietan zabaldutako mihiseetan.

Artea eta bizitza gurutzatu egiten direnez, 1994an Stephen DuBrulekin ezkondu ondoren Frankenthalerrek paper gainean sortu zituen margolanek bizitzan aukera berri bat ospatzen dutela dirudi. Hala, *Eguzki-bulkada* (*Solar Imp*, 1995) eta *Cassis* (1995) lanetan optimismoa nabaria da, bai kaligrafiaren argitasunean eta bai darien alaitasun apetatsuan.

Bere jardunean, Frankenthalerrek beti egin zion lekua edertasunari, beste artista gazteago batzuek, politikoki konprometituagoek, bere lana zaharkituztat edo hutsaltzat jo zutenean ere. Edertasunak ihes egiten die definizio errazei: Frankenthalerrentzat edertasunak giza izaera islatzen zuen. Obra berantiarrek, adibidez *Hegoalderako esposizioa* (*Southern Exposure*, 2002), denboraren iheskortasuna iradokitzen dute. Era berean, *Ekialderantz gidatzen* (*Driving East*, 2002) behatzean, amaiera, atzeraezina antzeman daiteke. Zer da, ordea, egunsentia ala ilunabarra?

Osasun-arazoengatik lan egiteko gaitasuna mugatua zuenean ere, artistak grabatuen edizioak egiten jarraitu zuen bere bizialdiko azken hamarkadan. Frankenthalerrek edertasunean zuen fedea eta araurik gabeko artearen bilaketa etengabea bikain laburbiltzen dira bere hitz hauetan: “Denborak aurrera egin ahala, onenarekin geratzen gara”.

DIDAKTIKA

Erakusketarekin batera, Didaktika guneak Frankenthalerren bizitza eta ibilbide artistikoa aztertzen ditu: bere haurtzaroa eta ikasle urteak; bere heldutasun artistikoa eta New Yorkeko Eskolarekin zuen lotura;

Europarekin zituen harreman oparoak; eta artearen munduko beste pertsona gailen batzuekin izandako adiskidetasuna.

Bertan, Anthony Caro, Robert Motherwell, Kenneth Noland, Jackson Pollock eta David Smithekin Frankenthalerrek izandako harremanaren xehetasunak eskaintzen dira. Artxiboko irudiekin erakusketarako berariaz sortutako bideo bat ere eskaintzen da.

Hezkuntza-jarduerak

Inaugurazio-hitzaldia (apirilak 9)

Erakusketaren komisario Douglas Dreishpoon solasean arituko da Pulitzer Sariaren finalista Mary Gabrielekin. Idazle honek argitaratuak dituen liburuen artean: *Ninth Street Women: Lee Krasner, Elaine de Kooning, Grace Hartigan, Joan Mitchell, and Helen Frankenthaler: Five Painters and the Movement that Changed Modern Art*.

Hausnarketa partekatuak: Funtsezko kontzeptuak (maiatzak 7)

Museoko profesionalak gidatutako bisitaldi hauetan erakusketen edukiei buruzko ikuspegi desberdinak eskaintzen dira. Oraingoan, Museoko Hezkuntza Koordinatzaile Luz Magureguik erakusketaren funtsezko gakoak azalduko ditu.

Jarduerak Museoaren Lagunentzat

Guggenheim Bilbao Museoaren Lagunek erakusketa bakoitzari lotuta antolatzen diren bisita eta jardueretan parte hartzeko aukera.

Soirée, Matinée (apirilak 8 eta 9)

Museoaren Lagunei eskaintzen zaizkien bisita eskusibo hauek erakusketen komisarioek gidatuak dira, publikoarentzat ireki aurretik. Nazioarteko eta Ohorezko Kideentzat.

Lagunartean (apirilak 24)

Bisita gidatua erakusketara eta jarraian bazkaria Guggenheim Bilbao Bistrón.

Bisitaldi eskusiboak (apirilak 25, 27, 29, maiatzak 2 eta 4)

Erakusketarako bisita gidatuak taldeentzat.

Ibilbide sakonak (maiatzak 7 eta 14)

Talde txikietan garatzen diren solasaldi hauetan testuinguruan kokatzen da erakusketa. Jarraian, bisita gidatu bat egiten da.

360°-ko murgilketa (apirilak 10)

Erakusketarako bisita birtual gidatuak online, doan eta zuzenean, Museoko Hezkuntza Digitalaren Zuzendariorde Marta Arzaken eskutik.

<https://www.guggenheim-bilbao.eus/en/museum-members>

KATALOGOA

Erakusketarekin batera katalogo bat argitaratu du Museoak, Frankenthalerren katalogo arrazoituaren zuzendari eta erakusketaren komisario Douglas Dreishpoonek editatua. Frankenthalerren bizitza eta obra aztertzen ditu, adiskidetasun, kideatasun eta eragin artistikoen ikuspegitik.

AZALEKO IRUDIA

Helen Frankenthaler

Cassis, 1995

Akrilikoa paper gainean

154,3 x 198,8 cm

Helen Frankenthaler Foundation, New York

© 2025 Helen Frankenthaler Foundation, Inc./Artists Rights Society (ARS), New York / VEGAP

Argazkia: Roz Akin, courtesy Helen Frankenthaler Foundation, New York

Informazio gehiago:

Guggenheim Bilbao Museoa

Komunikazio eta Marketin Saila

Tel.: +34 944 359 008

media@guggenheim-bilbao.eus

www.guggenheim-bilbao.eus

PRENTSAK ERABILTZEKO IRUDIAK
Helen Frankenthaler: Araurik gabe margotzen
Guggenheim Bilbao Museoa

Prentsarako online irudien zerbitzua

Museoaren webguneko Prentsa Sailean (prensa.guggenheim-bilbao.eus) erregistratzeko aukera duzue, bai erakusketen bai eraikinaren bereizmen handiko irudiak eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzue, erregistra zaitezke eta behar duzuen materiala deskargatu.

Dagoeneko erabiltzailea bazara, sartu erabiltzaile-izena eta pasahitza. Horrela, zuzenean deskargatu ahal izango dituzu irudiak.

- Ematen diren irudiak *Helen Frankenthaler: Araurik gabe margotzen* erakusketarekin zerikusia duen publizitate editorialerako soilik erabili behar dira. Erakusketa 2025eko apirilaren 11tik irailaren 28ra bitartean egongo da publikoarentzat zabalik.
- Irudiak osorik erreproduzitu behar dira, mozketarik, gainjartzerik eta manipulaziorik gabe. Erreproduzioekin batera datu hauek adierazi behar dira: artistaren izena, artelanaren izenburua eta data, jabea, copyrightaren titularra eta argazkiaren kredituak.
- Webean argitaratutako irudi guztiek babestuta egon behar dute segurtasun-neurri egokien bitartez, eta artistaren copyrightarekin.
- Irudi orok 1.000 pixeleko bereizmena izan dezake gehienez, alderik luzeenean. Online argitalpenean fitxategiak txertatuta egon behar du, eta ezin izango da deskargatu.
- Irudiak ezin dira transferitu hirugarren bati edo datu-base batera.
- Azaleko irudiak erabiltzeko alde zuretik artistaren baimena behar izango da.

Informazio gehiago nahi izanez ger, jar zaitez harremanetan Guggenheim Bilbao Museoaren Prentsa Sailarekin telefonoz (+34 944 359 008) edo posta elektronikoz (media@guggenheim-bilbao.eus)

Helen Frankenthaler
Horma irekia (Open Wall), 1953
Olio-pintura mihise gainean
136,5 x 332,7 cm
Helen Frankenthaler Foundation, New York
© 2025 Helen Frankenthaler Foundation, Inc./Artists Rights
Society (ARS), New York / VEGAP
Argazkia: Rob McKeever, eskaintza: Gagosian



Helen Frankenthaler
Santorini, 1965
Akrilikoa mihise gainean
269,2 x 175,3 cm
Guggenheim Bilbao Museoa. Dohaintza: Helen Frankenthaler
Foundation, Inc.
© 2025 Helen Frankenthaler Foundation / VEGAP



Helen Frankenthaler
Goizak (Mornings), 1971
Akrilikoa mihise gainean
294,6 x 185,4 cm
Helen Frankenthaler Foundation, New York
© 2025 Helen Frankenthaler Foundation, Inc./Artists Rights
Society (ARS), New York / VEGAP
Argazkia: Rob McKeever, eskaintza: Gagosian



Helen Frankenthaler
Matisse mahaia (Matisse Table), 1972
Altzairua
209,6 x 134,6 cm
Helen Frankenthaler Foundation, New York
© 2025 Helen Frankenthaler Foundation, Inc./Artists Rights
Society (ARS), New York / VEGAP
Argazkia: Jeffrey Sturges, eskaintza: Helen Frankenthaler
Foundation, New York



Helen Frankenthaler
Urdin mugikorra (Moveable Blue), 1973
Akrilikoa mihise gainean
177,8 x 617,8 cm
ASOM Collection
© 2025 Helen Frankenthaler Foundation, Inc./Artists Rights
Society (ARS), New York / VEGAP
Argazkia: © ASOM Collection



Helen Frankenthaler

Izarrei begira (Star Gazing), 1989

Akrilikoa mihise gainean

181,6 x 365,8 cm

Helen Frankenthaler Foundation, New York

© 2025 Helen Frankenthaler Foundation, Inc./Artists Rights
Society (ARS), New York / VEGAP

Argazkia: Tim Pyle, courtesy Helen Frankenthaler Foundation,
New York



Helen Frankenthaler

Jano (Janus), 1990

Akrilikoa mihise gainean

144,8 x 240,7 cm

Helen Frankenthaler Foundation, New York

© 2025 Helen Frankenthaler Foundation, Inc./Artists Rights
Society (ARS), New York / VEGAP

Argazkia: Dan Bradica, courtesy Helen Frankenthaler
Foundation, New York



Helen Frankenthaler

Requiem, 1992

Akrilikoa mihise gainean

79,1 x 243,8 cm

Guggenheim Bilbao Museoa

© 2025 Helen Frankenthaler Foundation / VEGAP



Helen Frankenthaler

Cassis, 1995

Akrilikoa paper gainean

154,3 x 198,8 cm

Helen Frankenthaler Foundation, New York

© 2025 Helen Frankenthaler Foundation, Inc./Artists Rights
Society (ARS), New York / VEGAP

Argazkia: Roz Akin, eskaintza: Helen Frankenthaler Foundation,
New York



Helen Frankenthaler

Hegoalderako esposizioa (Southern Exposure), 2002

Akrilikoa paper gainean

153,7 x 187,6 cm

Helen Frankenthaler Foundation, New York

© 2025 Helen Frankenthaler Foundation, Inc./Artists Rights Society (ARS), New York / VEGAP

Argazkia: Dan Bradica, eskaintza: Helen Frankenthaler Foundation, New York



Jackson Pollock

Zirkunzisia (Circumcision), 1946

Olio-pintura mihise gainean

142,3 x 168 cm

Peggy Guggenheim Collection, Venezia (Solomon R. Guggenheim Foundation, New York)

© The Pollock-Krasner Foundation, VEGAP, Bilbao, 2025



Mark Rothko

Titulurik gabea, 1949

Olio-pintura eta teknika mistoa mihise gainean

228,9 x 112 cm

National Gallery of Art, Washington, Dohaintza: Mark Rothko Foundation, Inc, 1986, 43.158

© 1998 Kate Rothko Prizel & Christopher Rothko / VEGAP, Bilbao, 2025



Morris Louis

Aleph saila V (Aleph Series V), 1960

Magna mihise gainean

266,7 x 208,3 cm

Helen Frankenthaler Foundation, New York

© Morris Louis, VEGAP, Bilbo 2025

Argazkia: Dan Bradica, eskaintza: Helen Frankenthaler Foundation, New York



David Smith

Titulurik gabea (Zig VI) [Untitled (Zig VI)], 1964

Altzairua eta pintura

200,3 x 112,7 x 73,7 cm

The Estate of David Smith, New York

© The Estate of David Smith, VAGA, New York / VEGAP, Bilbao, 2025

Argazkia: Jonty Wilde



Anthony Caro

Eskaileretan gora (Ascending the Stairs), 1979-83

Altzairua, txapa eta berniza

111,8 x 83,8 x 101,6 cm

Helen Frankenthaler Foundation, New York

© Anthony Caro, VEGAP, Bilbo 2025

Argazkia: Thomas Barratt, eskaintza: Helen Frankenthaler Foundation, New York



Frankenthaler Hirugarren Hiribideko bere estudioan *Alassio* (1960, lantze-prozesuan) ondoan duela, New York, 1960.

Helen Frankenthaler Foundation Archives, New York. Argazkia:

Walter Silver © The New York Public Library / Art Resource, New York. Material grafikoa

© 2025 Helen Frankenthaler Foundation, Inc./Artists Rights Society (ARS), New York / VEGAP

